

Itsasoar guztioi, adeitasunez,

2023ko apirilaren 1ean Itsasoko Ganbara Aretoan burututako Herri Batzarraren akta doakizue segidan:

1.- Dendaren galdetegietatik ateratako ondorioak eta hurrengo pausoak (Gorka Egiaren eskutik)

ALEGIKO SINDIKATOA- LEHEN DIAGNOSIA: HASIERAKO ONDORIOAK

EKOIZLEEKIN  
BILERAK:  
ONDORIO  
NAGUSIAK

1. EKOIZLE SORTA INTERESGARRIA ETA POTENTZIAL HANDIKOA DAGO HERRIAN.
2. EKOIZLE GEHIENEK BERAIEK PRODUKTUAK ENPLEATUTA DAUZKATE.
3. BAKOITZAREN BEHARRAK EZBERDINAK DIRA.
4. LANGILE BAT JARTZEN BADA, LANGILE HORREN EGITEKOAK DENDARIA IZATEA BAINO ASKOZ GEHIAGO IZAN BEHARKO DU.

EKOIZLEEKIN  
BILERAK:  
ESKAERA

1. ESZEDENTEEN ZER EGIN?
2. INTERNETEN ZABALKUNDEA.
3. EKOIZPEN MODU JASANGARRIEN INGURUKO PEDAGOGIA ETA IKUSGARRITASUNA EMATEA.
4. HERRIAN EGITEN DENA BALIOAN JARTZEA: HERRITARREI HERRIKO PRODUKTUAK GERTURATZEA.
5. PRODUKTUAK BERTAN JARTZEKO AUKERA.

GALDETEGIA:  
EMAITZAK

- PARTE-HARTZEA %66koa izan da
- ADIN-TARTEA kontutan hartuta: +50 urte= %56; 30-50 urte=%40; 18-30 urte= %5
- **%68k DENDAREN behar handia dagoela adierazi du**
- INPLIKAZIO MAILAZ galdetuta, 13 pertsonen proiektuan inplikatzeko borondatea adierazi dute
- ORDUTEGIA: erantzun anitzak izan arren, 15:00etatik 20:00etara irekita egotea nagusitu da

GALDETEGIA:  
ERANTZUNAK

- Beste produktu hauen eskea adierazi da: higiene pertsonalerako produktuak; animalientzat pentsua; posta; arraina; baratze landareak, haziak; arrautzak; potajea, lekaleak, pasta; su egurra, peleta; ardoa, garagardoa (edariak); jostintzarako tresnak; botikina osatzeko gauzak; papergintzako materiala, bulegoko material txikia; egunkaria; pilak; herrian egindako bestelako produktuak; produktuen nundik norakoa adierazi, kalitatea bermatu, bitartekaririk gabekoa, ekoizleari zuzenean erostearen balorea lehenetsi,...
- DENDAK bete beharrezko beste eskaera batzuk: beste erosketa batzuen bilketa puntua; paketeria zerbitzua; herritarrentzat bilgune puntua; turismo bulegoa; kafea hartzeko lekua; ...
- Balizko LANGILEAK egin beharrekoak: produktuei buruzko informazioa eman; konpost-gunea kudeatu; komunitaterako lanak burutu (adinekoen zaintza, aisialdia, etxeetara banaketa, barazkiak garbitu/txikitu, farmaziako erosketak); herriari buruzko informazioa, turismo bulegoa; Alegiako elkartearekin zerbitzua partekatu; ...
- Beste ERANTZUN batzuk: herriko gazteentzat lanpostua sortu; Alegiako auzoa berrindartu; ...

HURRENGO  
PAUSUAK  
(MARTXOA/  
APIRILA):


- EREDU EZBERDINAK EZAGUTU.
- DIRU LAGUNTZA AURKEZTU.
- KONTSUMO TALDEA OSATZEKO AUKERA EZBERDINAK MAHAI GAINEAN JARRI.
- BIDERAGARRITASUN PLANAK OSATU.
- PROPOSAMEN KONKRETUAK OSATU.
- HERRITARREI AURKEZTU

2.- Siadecoren galdetegietatik ateratako ondorioak (Itsaso Osarekin)

ITSASOKO AUZO UDALAREN ERAKETA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

A| Parte hartze prozesua

- Itsasoko Auzo Udalaren eraketa diseinatzeko **partaidetza prozesu** bat martxan jarri zen 2022an, Auzo Udalaren diseinua herritarren **partaidetza ahalik eta zabalenarekin** egin nahi izan da eta parte hartze prozesuan zehar bildutako **herritarren iritziak kontuan hartuta** diseinatuko da etorkizuneko Itsasoko Auzo Udala. Parte hartze prozesuak **3 fase** ditu:




## B | HERRITARREI EGINDAKO GALDEKETAREN EMAITZAK

- **ERABILITAKO METODOLOGIA:**


- **Edukiari dagokionez, identifikatzaile hauek hartu dira kontuan:** IDENTIFIKAZIOA, IKASKETAK ETA LANA, BIZITZA ETA ZERBITZUAK, ITSASOKO BATZORDEA, ITSASOKO AUZO UDALA
- **Formatua berriz, bi eratakoa:** Online eta paperean
- 72 galdegegi erantzun dira, **%79a**, horietako 53 paperean jaso dira




- **HERRITARREN PROFILA**

- **Genero eta adina:** %51,4, emakumezkoak eta % 47,2 gizonezkoak, horietatik %48,6a 35-64 urte artekoenak
- **Jaiolekua eta bizitokia:** % 58a, Itsason jaiok dira (Itsasoko herrigunean % 22,2a; Itsaso barreiatuan %44,4a; Itsaso Alegian %15,3a; Alegi barreiatuan %13,9a; Mandubian %2,8a eta beste bat, %1,4a)
- **Familiaren egitura:** Bakarrik bizi direnak, %15,3a; gurasoekin bizi direnak, %13,9a; bikotekidearekin edo seme-alabekin, %31,9a; banandua/alarguna/guraso bakarra seme-alabekin, %1,4a; beste bat, %6,9a. **Bakarrik bizi direnen adinari dagokionez, %70ak 75 urte baino gehiago** ditu.
- **Ikasketak:** Oinarrizkoak baino baxuagoak, %30,6a; oinarrizkoak, %12,5a; batxillergoa, % 8,3a; Lanbide Heziketa, %23,6a; unibertsitatea, % 25a. **Lana:** %13,9a autonomoa da; %4,2a negozio baten jabea edo bazkidea da; %25a langile kontratatuta; %5,6a erakunde publikoetan ari da; %5,6a etxeko lanetan; %8,3a ikasten ari da eta %37,5a jubilatua da. **Lan sektorea generoaren arabera:**



- **BIZITZA ITSASON**





● **ITSASOKO BATZORDEA**

- **Ezagutza eta balorazioa:** %61,2ak batzordea asko edo nahikoa ezagutzen du; horietatik % 92,1ek balorazio ona edo oso ona egiten du. **%34,4a** Batzordeetan parte hartzeko prest dago

● **AUZU UDALA**

- **Itsasoren garapenerako arlo garrantzitsuenak:** %47,2ak **etxebizitza eskuratzeko aukerak** eta %40,3ak **baserri eta landa eremuko bizitegian etorkizuna ziurtatzeak** leheneratu ditu. Ingurune naturalaren zaintza, bideen konponketa eta mantenua, Gizarte zerbitzuak eta laguntza beharrenda dauden pertsonen zaintza eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea ere garrantzitsutzat jo dira, biztanleria igotzeko erronka, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak bermatzea, eskolaren aldeko sustapena, aisialdiko jardueren eskaintza osoa, argitazpena edo bidegorria bezalaxe.
- **Ados al zaude Itsaso Auzo Udal bihurtzarekin?** galderari **%85,3ak** oso ados edo nahiko ados dagoela erantzun du.

### Alde onak

Eskumen propioak izatea  
 Izaera juridiko propioa izango du  
 Gertuko kudeaketa eta beharren arabera kudeaketa  
 Kudeaketa eraginkorragoa  
 Erabakiak hartzeko askatasuna  
 Itsaso herriarekiko ardura zuzenagoa  
 Egungo sistemaren jarraipen naturala  
 Aurrekontu propioa eta dirulaguntza gehiago lortzeko gaitasuna  
 Azken urteetan izan dituzten abantailez gozatzeko jarraitzea  
 Nortasun edo izaera propioa  
 Itsaso balioan jartzea  
 Itsasoren zaintza


### Zailtasunak

Ezkierekiko menpekotasuna eta ondorioz bizikidetzaren beharra  
 Auzotar guztien inplikazioa  
 Batzordeen erreleboa egiteko herritarren inplikazio falta  
 Gazteen parte hartzea eragitea  
 Hirugarren adinekoei egokitutako prozesua ere izatea

**Informazio mailari dagokionez**, %28,1ek ASKO erantzun du, %43,8k NAHIKOA eta %28,1ek GUTXI erantzun du.


**Auzo Udalari buruzko BALIZKO GALDEKETAREN aurrean**, %86,4k baietz erantzun du.

**Bestelakoak.....** “Itsaso herria da”, “Auzo Udala behar beharrezkoa dugu”, “Garai bateko Itsaso herri bizia izatea nahi dugu”, “ Herri ez bagara, gutxienez auzo udal izan gaitzen”, Aukera honetan **sinisten dugu...**, “**Ofizialtasun bat** lortzeko modua izango da”, “**Badagokigulako...**”



### C| hemendik aurrera zer?

#### Parte-hartze prozesuari dagokionez:



### Foru arauaren berrikuspena

- Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzen dituen 2/2003 Foru Arauaren berrikuspena egiteko Ponentzia abiatu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek.
- Ponentziako ondorioetan jaso zen Itsasotik eginiko eskaera, hau da, diktadura garaian elkartutako herriek Auzo Udal bihurtzeko aukera izatea 500 biztanleko muga bete beharrik gabe.
- Martxoaren 8an Aldundiarekin egindako bileran adostu genuen, lege aldaketa tramitatzeko, ponentziako ondorioak Foru Arauari txertatzeko azken xedapen moduan redaktatzea, eta Batzar Nagusiei eskatzea dokumentu hori Aldundira bideratzeko. Horrela, errazagoa izango delako Foru Arauaren berrikuspen osoa egitea baino. Horrela, hilabete batzuk barru Itsasok aukera izango du Auzo Udal izaera lortzeko.

### 3.- Maiatzeko Udal Hauteskundeak

Martxoaren 11n izandako Herri Batzarrean Ezkio-Itsasoko Udal Hauteskundeetan Itsasoren parte-hartzea aztertzen hasi ginenetik emandako urratsetan oinarrituta (bozketa, ordezkari gisara eraturako taldea,...) besteak beste, “Ezkio Eraikiz” taldearen proposamena aztertu da: zerrenda horretan Itsasoko ordezkari bat sartzea, zinegotzi izango litzatekeena, baina Itsason orain arteko funtzionamenduari jarraitzeko, alkatearen hainbat eskumen delegatuta.

Hau horrela, gaur egungo alkatearekin Ezkion herri bozketaz osatutako talde independentean (“Ezkio eraikiz”), **Itsasoko ordezkari bat egotearen komenigarritasuna bozkatu da**, eta haxe izan da emaitza: 18 boto BAI  
2 boto TXURI

Itsason egindako herri bozketa kontutan hartuz, Gorka Sasieta izango litzateke zinegotzi eta Itsasoko ordezkari hau, Auzo Udal izaera lortu bitartean.

Adeitasunez,

Itsasoko Batzordea

Itsason, 2023ko apirilaren 1a